

www.noaia.com

Noaia!!



Larunbatean, errausketaren aurkako manifestazioa



Hasi da pilota denboraldia

Etorn
ezagutzera

Olar-Goxo
ETXEBESTE



HARATEGIKO ERREKREAZIUNAK
BASERIKO TXAKAL URSIDA, BEHI
TOLLETAK, ETSIKO AKUNKA ETA
ETXEAN EGINDAKO PRODUKTUEN
AURKERA ZABALA.

URDAITEGIKO ERREKREAZIUNAK

OHDI ETA EGOSTIAKO
MEDIAZINAK, EESTAKO ETA
KANTORO-GAZAK, URDAITEGIKO
PRODUKTUEN AURKERA ZABALA.



FRUTADENDA ERREKREAZIUNAK
BESTAKO BARRAZO ETA PILTEN, SELEKZIO
FABEGARAI, DEIAK KALITATE
HANDIENAKETA, SERBITZU HOBERRI-
NABARRIA ETA NEURRIZKO PREZIOETAN.

Zufiaurrena, 3 • ☎ 943 36 55 81 • 40170 Usurbil

LIZARDI LIBRYDENDA



Liburuak, aldizkariak, musika,
opariak, eskola materiala,
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1

Tlf: 943 36 11 15

MAHUKA

erropa denda



Etxebeste, 3
USURBIL
☎ 943 361 106

kinkildegia



baserritarren
jantziak
erdi prezioan

Badok Amairu !!

Ana Perez: "30 orduz hegazkin batean sartuta egon nintzen"

Hainbat herritarren begiak aztertu ditu dagoeneko Optikako langile Ana Perezek. Kirola eta bidaiatzea gustuko ditu. Gogoan du hegazkinean egon zuten bidaiak luze hura.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Adarragako tarta, oso gozo zalea bainaz.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Beti berandu ibiltzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELEAN?

Normalean ezer ez.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Ez nintzateke ezertan ezta inorengan berpiztuko.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Adinean aurrera egiteari, eta adin horretan sentitzen den bakardadeari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Kirolariak.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Maitasunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

30 orduz hegazkin batean sartuta egon nintzen.

9. LIBURU BAT.

"El médico". Nahiko haurtzaro gogorra bizitako umezurtz baten istorioa. Mediku bihurtzen da.

10. FILM BAT.

"En nombre de la rosa" edo "Airbag".



11. LEKU BAT.

Txina.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

San Esteban.

13. URTARO BAT.

Uda.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ZUBIETA LANTZEN HERRI PLATAFORMA **5. OR.**

HASI DA PILOTA DENBORALDIA **6. OR.**

EGUNEKO ZENTROAREN 3. URTEMUGA **10. OR.**

ETXEALDIKO PARKEA, BERRITUA **11. OR.**

JUAN MARI PASTORREN HITZALDIA **12. OR.**

LAU ESKUBALOI PARTIDA KIROLDEGIAN **15. OR.**

FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZ TRANSMISIOA **18. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Eusko Tren, 18:40

70 urteak ederki pasatxo ditu eta bizarra egin gabe. Poliki-poliki, bere bizitzako egun guztien itzelezko pisua gainean hartuta izango balu bezala, aldameneko eserlekuan jarri da. Segituan, ardura batek hartu dit barrena: "jaitsi beharko duenean ez dio denborarik emango. Lagundu egin beharko dior". Nerbio sistema azti jarri da. Agureak harritu egin nau Zarautzera iritsi garenean: bastoia maisuki eta duen itxurarako indartsu erabiliz, leihoa erdi itxi du, bertatik sartzen den haize zaplaztekoa saihestu nahian. "Indarra eta abilezia ditu", nere artean.

Oriora iritsi gara. Trena berandu dabil gaurkoan, 3 minutu, zehatz esateko, eta horregatik, segituan jarriko da berriro martxan. Agurea, dagoeneko ia

hutsik dagoen bagoian tente jarri eta urrutien duen atera abiatu da, motel, kamara geldoan. "Ez dio denborarik emango", errepikatu dut neure baitan bihotza asaldatzen zaidan bitartean. Nola ahala lagundu nahi diot baina ez dakit nola, besoetan ez badut hartzen behintzat. Azkenean, atera iristen ari denean, trena martxan jarriko dituen txistuak urratu dute airea, eta BRAUSTA! ateari itxi egin dira, agurea erdian harrapatuz.

Ez du inolako keinurik egin, besoekin indarra soilik. Eta atera da. Bihotzean atximurka bat sentitu dut, gertatutakoaren erantzulea izango banintz bezala. Erruki sentimendua gailendu zait barrenean. Berarengatik edo nirengatik zen, oraindik ez dut jakin.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 1. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 27.



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

LAUKOTI
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

**JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA**
Juan Jose enea, 6 Kalegar
Telf: 606 37 21 05

Zubieta Lantzen, errausketaren aurka osatu den plataforma berria

“Zubieta bizirik nahi dugu”

Errausketaren aurka eta beste-lako alternatiben alde azaldu dira askotan zubietarrak. Ideia horrekin bat dator Zubieta Lantzen, lehengo astean jendaurrean aurkeztu zen herri plataforma. Datu argigarri bat eman zuten: “oraindik inork ez du demostratu gaikako bilketa -berrerabiltzearekin, birziklatzearekin, konpostatzearekin eta tokian tokiko trataeretan oinarritutako kudeaketarekin- erraustea baino desgokiagoa denik”.

Errebote plazan eskainitako prentsaurrekoan zubietar ugari bildu ziren. Zaborraren kudeaketa alternatiboa sustatzeko, Zubietak bere lurraldea eskaini duela aditzera eman zuten. Gaikako bilketa eta zati organikoari konpostatzeko tratamendua emateko planak ere mahai gainean jarri izan

dituztela. Baina instituzioak entzungor azaldu direla salatu zuten: “agintariek errauste planta beste aukerarik ez dagoela diote baina hori esateko, lehenik eta behin, beste aukerak aztertu egin behar dira, eta eztabaida horri uko egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zeren beldur dira? Zergatik ez da eztabaida leial eta zintzoa bultzatzen aukera guztien artean?”.

Itsuarena ez egin

Donostia eta Usurbilgo udalek duten erantzunkizuna ere gogora ekarri zuten. Donostiari Zubieta bere hirigintza interesen mesedetan ez erabiltzeko eskatu zioten. Eta Usurbili “itsuarena ez egiteko eta herritarren interesak defendatzerako orduan arduraz jokatzeko. Zubieta bizirik nahi dugu, eta bizirik behar dugu», azaldu zuten Zubieta Lantzen-ekoek.



LEHENGO LARUNBATEAN AURKEZTU ZEN ZUBIETA LANTZEN HERRI-PLATAFORMA.

Herri galdeketa alde

Zubieta Lantzen plataformak gizartearen iritzia biltzeko deia egin zien instituzioei: «eztabaidari atea zabaltzeko eskatzen dugu, eta gizartearen benetako parte-hartzea eta gai zail eta konplexu honen inguruko herri galdeketa egiteko».

IMANOL UBEDA _____

“Errausketarik ez, ez Zubietan, ez inon!”, manifestazioa larunbatean Lasarte-Orian

Errauste planten aurkako plataformek manifestaziorako dei berri bat egin dute. Larunbat honetan egingo da manifestazioa “Errausketarik ez, ez Zubietan, ez inon!” lelopean Lasarte-Orian, arratsaldeko 17:00etan hasita. Zubieta eta Usurbilgo plataformak oinez abiatuko dira Lasarte-Oriara.

16:00etan irtengo da Usurbilgo zutabea eta Zubietara 16:30ean iritsiko da. Usurbil eta Zubietako manifestariak elkarrekin abiatuko dira Lasarte-Oriara. Lasarteko Okendo plazan hasiko den manifestazioarekin bat egingo dute arratsaldeko 17:00etan.

MANIFESTAZIOA
16:30tan, Zubieta 17:00etan, Okendo Plaza, Lasarte-Oria
Azaroaren 25, larunbata
Errausketarik ez. Ez Zubietan, ez inon!

NO a la incineración
SI a las alternativas

Errausketarik ez
Alternatibak BAI

No a la incineración. Ni en Zubieta, ni en ningún sitio.
Sábado 25 de noviembre
16:30 h, Zubieta 17:00 h, Plaza Okendo, Lasarte-Oria
MANIFESTACION

Usurbil Bizirik Sutegin bilduko da ostiral honetan

Usurbil Bizirik plataforma martxan da berriz ere. Ostiral honetan, azaroak 24, Sutegira hurbiltzeko deialdia egin du. Bilera 19:30ean hasiko da. Zubietan osatu berri den “Zubieta Lantzen” plataformako kideak ere bileran izango dira.

Errauste plantaren auziak izan duen bilakaera aztertuko da lehen lehenik. Zubietako plataformaren berri emango da, gainera. Funtsean, errausketaren aurkako herri dinamika berpiztu nahi dute Usurbilen. Bilera, arestian esan bezala, ostiral honetan egingo da, arratsaldeko 19:30ean Sutegin.

Hasi da pilota denboraldia

Hasi da pilota denboraldia. Pilotari gazteak lanean dira eta baita Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteak osatzen duten kideak ere. Baina lana bezain garrantzitsua da finantziatzea. Jada martxan da laguntzaile kanpaina. 10 euroren truke, herriko pilota elkarteak indartzen lagunduko duzu.

Pablo de Miguel eta Jokin Zubiaur Andatzpe-Peña Pagolako kideak dira. 2005/2006 denboraldiaren balantzea egin eta, aurrera begira, Usurbilgo pilota munduak dituen erronkei buruzko idatzia osatu dute. NOAUA!ri igorri dioten txostenak dioenez, “kirol arloan esan genezake, denboraldi ona edo oso ona izan dela. Urriari hasi zen Gipuzkoako txapelketa (klub arteko txapelketa bezala ere ezaguna). Mailarik onena, helduetan gizonezkoak eman zuten. Lehen Mailan, Eñrike Huizi eta Asier Arruti pilotariak final-aurreetara iritsi ziren eta Urretxuko taldearen aurka galdu zuten. Bigarren Mailan eta Hirugarren Mailan ere, bikote banak hartu zuen parte. Eskuz, kadete eta jubenil mailan; eta erremintaz, paleta gomaz, paleta larruz eta pala motzean eta seniorretan bikote bana izan zen (denak gizonezkoak)”.

Denboraldiko bigarren txanpan, Andatzpe Peña Pagolako pilotariak Udaberri Txapelketan hartu zuten parte. Elkarteko kideek aditzera eman digutenez, “elkarteko pilotariak diogu, zeren herriko pilotariek gain bada senior mailan kanpotar ugari, pilotari talde zabal eta serioa osatzen laguntzen digutena. Jubenil maila arte, pilotari gehienak, guztiak ez esatearren, herritarrik izan ohi dira. Baina arrazoi ezberdinetatik, tartean esku pilotak bere-bereia duen eskuko minagatik askok utzi beharra izaten dute. Kanpotarren ekarpena beraz oso ondo etortzen da senior mailan. Horrek ere talde serioa garelara adierazten du. Etxekoak bezala sentitzen baitira”, adierazi dute Pablo de Miguelek eta Jokin Zubiurrek.

Udaberri Txapelketa oparoa izan zen emaitza aldetik, pala motzean Udaberri



ANDATZPE-PEÑA PAGOLA TALDEA OSATZEN DUTEN GUZTIEK POZIK ETA INDARTSU EKIN DIOTE DENBORALDIARI. DUELA GUTXI ATERATAKO ARGAZKIAN DITUZUE HERRIKO PILOTARIAK.

Txapelketa irabazi baitzuen Jon Arrutik eta Oidui Usabiagak osatutako bikoteak.

Hura bukatu eta gero, denboraldiko azken txanpa hasi zen, Aste Santuarekin batera. Xarma gehien duen txapelketa jokatzeko ordua iritsi zen, herri artekoa. Usurbilek bi kanporaketa gaudituz zituen. Lehenbizi Zumarraga gaudituz zuten Andatzpe Peña Pagolak eta ondoren zegamarrak kanporatu zituzten nahiko modu errazean. Hirugarren kanporaketan, gerora txapeldun izango zen Azkoitiko taldearen aurka galdu zuten Usurbilgo taldeak.

Erremintaz ere, herri artekoan hirugarren aldiz hartu zuen parte Usurbilek, eta Andoainen aurka galdu zuten lehen kanporaketan.

SANTIXABELETAKO TXAPELKETA

“Denera 98 bikotek hartu zuten parte Santixabel egunean amaitu zen txapelketan”

Herri artekoarekin batera, elkartek antolaturiko txapelketak hasi ziren.

Haurren mailan herriko pilotarien arteko txapelketa jokatu zen banaka eta 14 urte arteko pilotarien artean.

Garai berean, benjamin, alebin, infantil eta kadeteen mailan bikoteka eta bialarako pilotariek antolaturiko txapelketa hasi zen, ekainean bukatu zena.

Asier Arruti, aurrerantzean, profesionaletan

Azkenik ezin aipatu gabe utzi Usurbilgo Txapelketa Nagusia, aurtan XXXIV. edizioa ospatu da. Gazte, 22 urtez azpiko eta nagusien mailan jokatu zen eta denera 98 bikotek hartu zuten parte Santixabel egunean amaitu zen txapelketan. Herriko pilotariek dagokienez, gazteen mailan Imanol Esnaola txapeldun izan zen andoaindar batekin bikotea osatuz, eta Iker Zinkunegik finala galdu zuten Ezeiza hernaniarrarekin. Senior mailan, ordea, Asier Arruti eta Eñrike Huizi herritarrek irabazi zuten txapela, Jabi Sancho (herritarra) eta Gutierrezen aurka. Asier Arruti txapelketako pilotaririk onena izendatu zuten.

Baina ez zen Usurbilgoa herriko pilotariek irabazi zuten txapelketa bakarra izan. Esaterako, bikote berak Zumarragako eta Errenterriako txapel-

ketak irabazi zituen. Gainera, Erreterian jokatu zuen Asier Arrutik afizionatu mailako azken partida. Abuztuan egin baitzuen estreinaldia profesional mailan Zarautzko Aritzatalde pilotalekuan.

Horrez gainera, Enrike Huizik Zarautzko Zaporra memoriala irabazi zuen Jon Artano donostiarrarekin batera. Asier Arrutik ere, Amezketan Joxean Tolosa txapelketa (banaka) irabazi zuen denboraldiaren hasieran.

Andatzpe eta Peña Pagola: bi elkarte, talde bakarra

Kontu jakina da pilota elkarteak Andatzpe eta Peña Pagola elkarteak osatzen dutela. Jokin Zubiaur eta Pablo de Miguel pilota elkarteak kideek aditzera eman dutenez, "bi elkarte direnez, Gipuzkoako Pilota Federazioan bi elkarteak daude izen emanda, nahiz eta praktikan elkarte baten moduan funtzionatzen dugun. Horrek, nahiz eta praktikan ez duen garrantzia handirik, baditu onura batzuk. Horregatik, Gipuzkoako beste klub batzuk aukera honetaz baliatzeko nahia adierazi diote Federazioari. Hori ikusita, Federazioak zera jakinarazi digu, arazo hau konpondu egin behar dela eta aurten orain arte bezala jarraituko dugun arren, hurrengo denboraldirako elkarte bakar bat bezala funtzionatu beharko dugula".

Ondorioz, pilota elkarteak zuzendaritzan (Peña Pagolako bazkide, Andatzpeko bazkide eta bazkide izan gabe pilotazale direnek osatua) eztabaida eta proposamen prozesu bat hasi dute. Oraindik erabakia hartu ez den arren, seguruenik pilota elkarte bakarra sortuko da herrian, estatutu propioekin eta bazkideez osatua. Usurbilgo pilotaren onerako izango da, ezbairik gabe.

Laguntzaile kanpaina abiarazi du Andatzpe-Peña Pagola Pilota Elkarteak

Iaz, eta lehenengo aldiz, diru iturri gisa laguntzaile kanpaina abiarazi zuen Andatzpe-Peña Pagola elkarteak. Urtetan, pilotalekuan ohiko bihurtu zen errifan salmenta eta zozketa alde batera utzi eta laguntzaile bila jo zuten. Lehen urtean, 360 laguntzailetik gora lortu zituen Andatzpe-Peña Pagolak. Aurtengo harrera ona errepikatu edo gaintu asmoz, jada martxan da 2007rako laguntzaile kanpaina.

Nola egin gaitetzke pilota laguntzaile?

Bi modu daude pilota laguntzaile egiteko.

- Zuzendaritzako kideren bati izen abizenak eta 10 euro (edo gehiago) emanda.
- Kontu korrante bidez, 10 euroko ingresoa eginez:

Kutxan: 2101 0069 17 0114177124.

Euskadiko Kutxan (Laborala):
3035 0140 39 1401028783.

Babesle ugari

Baina ez da Andatzpe-Peña Pagolak sustatu duen ekimen bakarra izan. Babesle kanpaina ere jarri zen martxan eta horretan ere entitate eta enpresen laguntza ezinbestekoa izan zen aurreko ikasturtean. Hauexek izan ziren enpresa-laguntzaileak: Saizar sagardotegia, Aginaga sagardotegia, Echeveste y Cia., Savasa, Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba, Kutxa, Easo, Josu Serigrafia, Andatza Karrozeriak, Manpel, Aizpurua autobusak, Kima masaiak, Mur errotulazioak. Lagundu dutenen artean ere, hauexek aurkitzen dira: Arruti harategiak, Bordatxo taberna, Ardi-Beltz garagardotegia.

Horiekin batera, Usurbilgo Udalaren laguntza ere jaso du Andatzpe-Peña Pagolak; laguntza ekonomikoa nahiz material bitartez.

Berrikuntzak Pilota Eskolan

Pablo De Miguel eta Jokin Zubiaurrek

azaldu digutenez, "bada aipatu gabe utzi nahi ez genukeen berritasun garrantzitsu bat. Eskola Kirolaren barruan, 14 urte arteko umeen kasuan, ikastolarekin elkarlanean egiten da kirol antolamendua. Txapelketak Foru Aldundiak antolatzen ditu eta ume guztien parte hartzea bultzatu ohi da. Orain arte umeen entrenamenduak pilotari gazteek egin izan dituzte. Ordainketa, berriz, umeek ordaintzen duten urteroko kuotarekin eta elkarteak jartzen duen diru kopuru batekin egin izan da. Sistema honek ez ditu beti emaitza onak eman. Horregatik, ikastolako Eskola Kiroleko arduradunak, beste zenbait herritan jarraitzen den ereduari jarraituz, zera proposatu zuen joan den maiatzean: pertsona bat kontratatzea, kirol heziketan tituluduna, umeen entrenamenduen gidaritza eramateko. Koordinazio lana ikastolako Eskola Kiroleko arduradun den Unai Latailladek eramango du. Ekimena martxan jarri da, eta entrenatzaileak jada zuzentzen ditu entrenamenduak. Baina oraindik Andatzpe-Peña Pagola Pilota Elkarteak eta Kirol Patronatua ez dira ados jarri zenbait kontu administratioboetan. Dena dela, arazo horiek konponetzea espero da hurrengo asteetan".

Kirol egitura sendoa

Entrenatzaileari dagokion soldataren gehiengoa Kirol Patronatuak ordainduko du. Umeen kuotarekin ordainduko da zati txiki bat. Andatzpe-Peña Pagolakoei adierazi digutenez, "frontoira gerturatzen bazarete, ikusiko duzue ume piloa ia egunero entrenatzen errenteriarra dugun entrenatzailearekin. Uste dugu pauso garrantzitsua eman dugula Kirol Patronatuarekin eta ikastolarekin elkarlanean. Kirol egitura sendoa bat osatzeko garaian ezinbestekoa zaiguna". Txiki-txikitatik pilotan hasten diren umei kirol heziketa egoki bat ematen, pilota maita dezaten. Konpetiziora bideratuz, baina errespetuan eta partehartzean oinarritutako kirol hezkuntza batean parte hartuz.

Herriko ur zikinak, Loiolara bidean

Egun, Usurbilgo ur zikinak kaleetako lur azpian dauden kolektoretatik Oria ibaira isurtzen dira. Urte batzuk barru, ordea, egoera zeharo aldatuko da. Lasarte-Oriakoekin batera Usurbilgo ur kutsatuek bide berri bat hartuko dute. Lur azpian ipiniko dituzten hodiaren bidez, Loiolako araztegia garraiatuko dira. Ondorioz, Añarbeko mankomunitatea osatzen duten herri guztietako ur zikinak sare bakarrean txertatuko dira. Lanak, 2008 urte hasierarako abian jar litezke.

Etxeetan edota industria guneeetan hondakin ugari sortzen da. Horietako asko arraska, komun zulo edota kaleetako estoldetatik behera doaz. Lur azpiko hodiak egiten duten bidearen helmuga ibaiak izan ohi dira. Hori da, Usurbilgo eta Lasarte-Oriako ur zikinaren nondik norakoa. Ondorioz, Oria ibaia kutsatzen jarraitzen da.

Hori saihesteko, Añarbeko Urak mankomunitateak bi herrietako ur zikinak Loiolako araztegia garraiatu nahi ditu. Hain zuzen, horiek izan ezik eremua osatzen duten gainerako herri guztietako ur kutsatuak aipatutako depuradorara bideratzen dira. Proiektu honen bidez, Mankomunitateko ur zikinak gune bakar eta berean bildu nahi dira. Horretarako, Usurbil eta Lasarte-Oriako lur azpitik ur zikinak igarotzeko hodiak ipiniko dituzte. Hernanin sarearekin bat egin eta Loiolarako bidea hartuko dute. Bestalde, herri barruko saneamendua hobetzea aurreikusten da.

Datorren udaberriarako lanak lizitatze-ko lehiaketa aurkeztea espero du Añarbe



ORAINGOZ, AGINAGA SARE HORRETATIK KANPO GELDITUKO DA. ETORKIZUNEAN, GUNE HORRETAKO UR ZIKINAK BILDUKO DITUEN PROIEKTUA GAUZATZEKO ASMOA DAGO.

Urak S.A.-ko lehendakari Enrike Noainek. Hortik aurrera, iradokizunak eta lanen adjudikazioaren txanda. “Datorren urte amaierarako edota 2008 hasierarako lanak hasi litezke”, aurrera- tu du Noainek.

ENRIKE NOAIN

“Igaroko diren lur sailen jabeekin hitz egitekoak gara. Lurrak erosi eta lurjabeekin kalte ordainak eskainiko zaizkie”

Baina lur azpiko lanak hasi aurretik, lur azalekoak konpondu behar. Usurbil-Hernani bidea, ia 14 kilometro luzeradun hodiekin lotuko dute. Bide horretan

igaroko dituzten lur sailen jabeekin hitz egitekoak dira. “Lurrak erosi eta lurjabeekin kalte ordainak eskainiko zaizkie”, baieztatu du Noainek.

Proiektuak “Estatuko Interes Orokorra” izendapena eskuratu du. Ondorio ekonomiko nabarmena du horrek. “Ehuneko ehuna estatu espainiarrak finantzatuko du”, argitu du Noainek.

Oraingoz, Aginaga sare horretatik at geldituko da. Etorkizunean, gune horretako ur zikinak bilduko dituen proiektua gauzatzeko asmoa dago.

Oria Beheko depuradoraren proiektua baztertuta

Ur zikinak Loiolara bideratzea erabaki aurretik, araztegia Oria Beheko arro-

LATAILLADE    **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 809 888 021

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA

Tel./Faxa: 943 365 125
Mobila: 649 435 470
kale Nagusia, 1. ILSURBII

an kokatzeko asmoa izan zen. Noainen hitzetan, "Usurbil, Lasarte-Oria eta Añarbekoa ez zen beste herriren bateko ur zikinak biltzeko".

Baina asmo hark ez zuen aurrera egin. Ingurumen aldetik balio handia duen gunean eraiki behar zen. Gainera, edozein energia mozketak eraikinaren funtzionamendua eten eta urak zikinkerri guztiakin Oriara ailegatuko ziren. Horren haritik, Noainek gogoratzen duenez, "itsasoak baino zaurkorragoak dira ibaiak".

Loiolako depuradoran ur zikinak tratatzeaz gain, hortik zuzenean Kantauri Itsasora garraitzen dira. "Kostaldetik kilometro eta erdian eta 50 metrotako sakoneran", Añarbeko Urak-eko lehen-dakariak zehaztu duenez.

Hodidak, gehienez, 5 metroko sakoneran

Proiektuak 13.712 metro hodi lurperatzea aurreikusten du. Horretarako, lurrean lauzpabost metroko sakoneradun zuloak egingo dituzte. Hodiak inklinatuta jarriko dituzte. Inguruetako orografia menditsua eta zuloen sakonera txikia izateak, Noainen hitzetan, "ponpaketa guneak eraiki eta kudeatzea suposatzen du". Hartara, ur zikinak hodiedan gehienez bost metro behera egiten dutenean, ponpaketa sistemak ura berriro lur azalera igoaraziko du. Horietako gune garrantzitsuenetakoa Zubietako hipodromoan kokatuko da. Horrenbestez, ur zikinak ibilbide gorabeheratsua izango dute.

Datu deigarrienak

Inbertsioa: 27.181.303,5 euro.

Lanak noiz hasi: 2007 amaiera, 2008 hasiera (behin behineko egutegia).

Lanen iraupena: 42 hilabete.

ARITZ GORRITI

Ez-ohiko udalbatza plenoa egin zen azaroaren 17an

Zuntz optikoa herriko txoko guztietara ailegatzeko Eusko Jaurlaritzari antenna bidezko zerbitzua eskaintzea eskatuko zaio. Aho batez onartu da azaroaren 17ko ez-ohiko udalbatzan. Urte berrirako ordenantza fiskalak ere onartu dira. Baita, Haraneko aldage-lak eta Artzabal berritzeko lanen esleipenak ere.



AZAROAREN 17KO PLENOA
EZ-OHIKOA IZAN ZEN.

Telebista ikusi, Interneten nabigatu edota telefonoz hitz egitea. Zerbitzu horiek guztiak kable bidez jasotzeko lanak egiten ari dira herrian. Baina hainbat gune proiektu horretatik kanpo gelditu dira. Antena bidez, zerbitzua gune guztietara ailegatzeko aurreikusten da. Azaroaren 17an izan zen ez-ohiko udalbatzan aho batez Eusko Jaurlaritzari atxikitze eskaera egitea adostu zen.

ZUNTZ OPTIKOA

"Herriko txoko guztietara iristeko, Eusko Jaurlaritzari antenna bidezko zerbitzua eskaini dezala eskatuko zaio"

Bestalde, gehiengoak hala onartuta, Harane futbol zelaiako aldage-lak berritzeko lanak Altuna y Uria S.A. enpresari esleitzea erabaki zen. Lanak burutzeko lau hilabeteko epea ematen zaio.

Artzabalen ere berritze lanak hasteko aurrerapausoa eman da.

Etorkizunean zahar etxea bertan kokatuko da. Eraikina berritzeko lanak Bioetxe S.L. enpresari ematea onartu du udalbatzak.

Lorzainen eskaera bat ere bideratu da. Langileek parke eta lorategietako belarra mozteko makina berria izango dute.

Portalmusubera eremuko zehaztasun azterlana behin betikoz onartu zen. Bi xehetasun zuzentzeari bide eman zaio.

Egun berean deituta zegoen ez-ohiko eta premiazko udalbatza. Urte amaiera gertu izanda, 2007. urte hasieratik aurrera aplikagarriak izango diren Ordenantza Fiskalak onartu ziren.

Saio berean, 2006ko ekitaldirako onartua zegoen aurrekontuaren bigarren kreditu aldaketa gauzatu da. Eguzkitza eta Kale Nagusia eraberritzeko lanen ordainketa kreditua gehituko da. Agenda 21 edota Olarrondoko urbanizazio proiektuari eskainitako diru partidak gutxituko dira.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

Ariz Gorriti
Lurpeko Lanak

OSU

943 371 954
UBALDEA POL.36-2·USURBIL

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARI ETXEA·37·KALZAR

txirriStra
KONTZEJU ZAHARRA 13
943 300 400

piatxoak
ogitartekoak
piatxoak konbinatuak

TABERNA

Hiru urte bete ditu Eguneko Zentroak



Puntapax Eguneko Zentroak hiru urte bete berri ditu. Lokotx apustu eta guzti ospatu zuten egun berezia. Kopa sarera lokotx gehiago nork botako lehiari aritu ziren. Axun Olaizolak irabazi zuen txapelketa. Bazkari eder batekin amaitu zuten.

LAB nagusi udaletxeko bozketa sindikalean

Hauteskunde sindikalak izan ziren lehengo astean Udalean. Bertako funtzionarioak diren langileek beraien ordezkariak aukeratzeko bozketa eguna izan zuten eta LAB sindikatua izan zen ordezkari gehien lortu zituena, 3 hain zuzen ere. Guztira 50 hautesle ziren eta 48 langilek eman zuten botua. 28 gizonezkoak ziren eta 22 emakumezkoak. Emaizte dagokionez, LAB sindikatuak 29 boto jaso zituen eta ELA sindikatuak, berriz, 19. Honenbestez, LABek 3 ordezkari eskuratu ditu Udaleko funtzionarioen hauteskunde sindikaletan eta ELAk 2. Honela bada, Mari Angeles Altuna, Aitor Eleta eta Begoña Rodriguez izango dira LABeko ordezkariak eta Joakin Otxotorena eta Maria Jesus Urkijo ELA sindikatua ordezkatzeko dutenak. Orain funtzionari ez diren langileena egitea falta da.

Orioko Arraun Elkartek prestatzaila ikastaroa antolatu du

Orioko Arraun Elkartek gaztetxoentzako entrenatzaileak prestatzeko ikastaroa antolatu du. Bi eguneko iraupena izango du. Azaroaren 25ean lehen saioa; abenduaren 2an bigarrena. Azaroaren 25ean 9:00etatik 13:00era eta 15:00etik 18:00etara. Abenduaren 2an, ordea, 9:00etatik 13:00era.

Norentzat izango da ikastaroa? Hamasei urtetik gorakoentzat, baina lehenetsia oriotarrek izango dute. Izen-ematea Orioko klubean bertan egin behar da. Prezioa: Hemezortzi urtetik beherakoek, 10 euro; hemezortzitik gorakoek, 15 euro.

Olio bilduko duen ibilgailua ez da abenduan etorriko

Udaltzaingoak aditzera eman duenez, "Usurbilen San Markosekoek biltzen digu birziklatu nahi dugun olio zaharra. Bilketa hileroko lehen asteazkenetan egin ohi da. Asteazkena jai eguna tokatzen denean, hil horretan ez da zerbitzurik ematen.

Kasualitatez azaroko lehen asteazkena eta abenduko jai egunak izan dira. Hau dela eta, hileroko lau garren larunbatean Urbilen zerbitzu hau eskaintzen dela adierazten dizuegu. Non: Urbil merkataritzaguneko aparkalekuan. Ordutegia: goizez, 11:00-13:00. Arratsaldean, 15:00-19:30".

Abenduaren 8an, odol emaileen bazkaria

Ohikoa den bezala, abenduaren 8an Usurbilgo Odol Emailen Elkartekoek urte bukaerako bazkaria egingo dute. Zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte lehenbizi eta gero Patri Jatetxean bilduko dira. Bertaratu nahi duenak, elkarteko ordezkariekin jar dadila harremanetan, ahalik eta azkarren:

Patxi	615 760 458
Agustina	943 363 102
Kattalin	943 362 139
Maite	943 366 040

Patri Jatetxean egingo den bazkariako txartelak 25 euro balio du.

Berritua izan da Etxealdiako jolas-parkea


Haurren jolasgune edo helduen pasealeku. Parkeek adin tarte ezberdinetako herritarrak erakartzen dituzte. Seme-alabek bertara eramaten dituzten gurasoak, garai batean horrelako lekuetan jolastu izan ziren. Parkeetatik belaunaldi ezberdinak igaro ohi dira. Urteak igarotzeak aisialdi gunea bera zaharkitzen dute. Ondorioz, belaunaldi berriei aurpegi eraberritua erakutsi behar. Horregatik, Kalezar edota Santueneko parkeak berrituak izan ondoren, oraingoan, Etxealdiakoari egokitu zaio.

Parkea berritzeko asmoa ez da gaurkoa. Udaleko zerbitzu eta kontratazioetako arduradun Julian Beraetxeren esanetan, "aspalditik zegoen behar bat zen. Gauza guztiei bezala bere txanda ailegatu zaio".

JULIAN BERAETXE

"Aspalditik zegoen behar bat zen. Gauza guztiei bezala bere txanda ailegatu zaio"

Berrikuntzak begi bistakoak dira. Neurritz eta itxuraz aldatu dute parkea. Eraberritu dutena, aurrekoarekin alderatuta, handiagoa da eta jolasteko elementu berriak ditu. Denborarekin ere gainerako guztia bezala, haurren jolas lekuak eboluzionatu baitute. "Haurren eta haien



KALEZAR ETA SANTUENEKO PARKEAK BERRITU ETA GERO, ETXEALDIAKOA BERRITZEKO GARAIA IRITSI DA.

gurasoen pozgarri izatea espero dugu, bizilekutik urrundu gabe jolasteko aukera izango baitute", adierazi du EAJ-PNVko zinegotzi den Beraetxek.

Eserleku eta guzti

Baina horrelako guneak ez dira soilik haurren eta haiek zaintzen dabil-tzan gurasoen erreinua. Ateri denean behintzat, adinekoek horrelako gune-etan ipintzen dituzten eserlekuetan edota osteratxo bat egiteko baliatzen baitituzte guneok. Etxealdiakoak ere haur parke baten ohiko elementuez gain, eserlekuak ditu. Beraetxek gogoratzen duenez, "leku horietan eserita egoteko lekuak egoteko eskaerak jaso-

tzen ditugu".

Parkeak ugaltu dira herrian, etxebizitza eta biztanle kopuruak joera berrari eutsi dioten neurrian. Ondorioz, enparantzak eta aisialdi guneak ere gehitu dira. "Horiek haurrentzat parkeak egitea eskatzen du" gogoratu du udal ordezkariak.

Bertako lanak amaitu berri dituzte. Baina beste gune batzuk zaharkituta egon daitezke. Halako beharren bat sumatuz gero, Udalarri eskaera luzatzea dei egiten du Beraetxek, "parke inguruetan bizi diren herritarrak inor baino hobeto jabetuko baitira".

ARITZ GORRITI

ALIPROX

Kale Nagusia 10
 ☎ 943 361 182
 USURBIL

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
 687 95 12 25

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
 ☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Jose Mari Pastor, Berriako Mundua saileko erredaktorea

“Espainiarrek ez dute inoiz tradizio demokratiko handirik izan”

Nazioarteko informazioan aditua da Jose Mari Pastor bizkaitar kazetaria. Berriako Mundua saileko erredaktorea da eta Interneten Munduartea bloga kudeatzen du (www.berria.info/blogak/josemari). Autodeterminazioaren alde Usurbilen elkartutako herritar taldeak eskatuta, autodeterminazioaren inguruko hitzaldia eskainiko du azaroaren 30ean, 20:00etatik aurrera Sutegin. Besteak beste, Europan eta Europatik kanpo Euskal Herriarentzat ispilu izan daitezkeen adibideak azalduko ditu arratsaldeko 20:00etan hasiko den hitzaldian.

NOAUA! Mugarik gabeko Europa honetan, estatu nazioen formulazioa da nagusi oraindik. Autodeterminazioaren aldarrikapena formulazio horretatik bideratu beharko litzateke, ala ez.

Jose Mari Pastor. Estatu nazioa nagusi da oraindik, bai. Gainera, kontzeptu horren inguruan diskurtso bitxia dute batzuek autodeterminazioaren kontra egiteko. Horrek independentzia ekar dezakeela eta, Europa batuan estatu berriak sortzea anakronismoa dela esaten dute. Argudio hori erabiltzen dutenetako askok, ordea, inoiz baino irmoago eusten diete beren estatuei eta estatu horien botereari eta subiranotasunari. Ez dute estatu berririk nahi, “historiaren kontra doalako” baina, funtsean, estatuen egituraketa zaharra defendatzen ari dira eguneroko praxian.

N. Zeintzuk dira Euskal Herriarentzat adibide izan daitezkeen ereduak?

J. M. P. Edozein, Europan bertan gertatu dena. Montenegroko erreferenduma, esaterako. Han Konstituzioak banatzeko eskubidea onartzen zuen; Belgradek ez zuen mehatxu militarrik egin, eta batasunaren aldekoek emaitzak

onartu zituzten, galtzaileak izan arren. Edo Londresek Irlandako bake prozesuan onartutakoa: beti errespetatuko duela Irlanda iparraldeko herritarrek demokratikoki erabakiko dutena. Europatik kanpo Quebecen ere egin da erreferendumik, Kanadako Konstituzioak zuzenean ahalbiderik eman ez arren, eta inork ez du inor auzipetu edo espetxeratu. Bada bestelako kasurik munduan, Mendebaldeko Saharari autodeterminazioa onartu diote Nazio Batuek, baina nazioarteak ez du hori betearazten.

Batzuetan uste dut Euskal Herriarentzako adibideak bilatu beharrea Espainia eta Frantzia bezalako estatuentzako ereduak bilatu beharko liratekeela.

JOSE MARI PASTOR

Autodeterminazio eskubidea Europan nola garatzen ari den azalduko du azaroaren 30ean Sutegin

Frantziak tradizio jakobinoa du eta hori Espainiako herritarren artean ere errotua da, espainiar askok, inkontzienteki bada ere, berez duten nazionalismo trogloditari lotuta. Espainian ideologiak desagertu egiten dira batasun nazionalaren auzian. Calvo Sotelo politikari faxistak berak esaten zuen Espainiako Errepublikaren garaian: “Espainia gorria nahiago dut Espainia apurtua baino”. Gainera, Espainiak beste defizit bat du, Frantziak teorian ez duena: tolerantziaren diskurtsoekin eta abarrekin kontrakoa saldu nahi diguten arren, espainiarrek ez dute inoiz tradizio demokratiko handirik izan. Historiari begiratu besterik ez dago.



JOSE MARI PASTOR (ESKUBIKOA), MINORITY DAILIES ASSOCIATION-eko BILKURA BATEAN.

N. Autodeterminazioa lurraldetasunarekin lotuta dago. Kanpoko esperientziak kontuan hartuz, funtsezkoa litzateke lehenik eta behin lurraldetasuna definitzea, ala ez?

J. M. P. Autodeterminazioa kolektibitate baten inguruan garatzen den eskubidea da. Kolektibitate horrek euskarri bat dauka, subjektu politikoa. Subjektu politikoa zein den adostu behar da eta erabakitzeko eskubide hori nola bermatu eta garatu. Ez da, berez, independentzia, subiranotasuneranzko urrats bat baizik. Herritarrei hitza ematea.

Subiranotasunak ekar ditzakeen onurak soilik estatu nazioaren kontzeptua aipatuz nabarmendu behar dira ala beste kontzeptu batzuen inguruan? Zaila da erantzuten. XXI. mendeak ekarri eta ekarriko dituen gizarte aldaketek eta erronka berriek beste ikuspegi bat emango diote gaiari. Zer mezu hedatu beharko da herritarrek autodeterminazioaren kontzeptura hurbiltzeko subiranotasunerako bidean? Balio du “independentek izango gara ondorioz egunero aza egosia jan beharko badugu ere” esateak? Batzuentzat bai, baina independentzia nahi hori hedatu eta nagusitzeko egokia da? Hego Ameriketako etorkinei eta haien seme-alabei horixe esango diegu, “independentek izango gara aza egosia jan arren”? Ez,

etorkinak ez dira aza jatera etorri. Euskal Herriak bere geroa erabakiz gero Espainiarekin baino hobeto biziko direla esanez agian bat egingo dute, bestela, ez.

JOSE MARI PASTOR

“Kataluniako Legebiltzarrak autonomi estatu berria onartu eta gero militar batek tankeekin mehatxatzen badu, zer espero daiteke?”

N. Beste lurralde batzuetan gainera, arazo erlijiosoak ere tarteko izan dira. Zentzu horretan, bideragarriagoa izan al daiteke Euskal Herrian?

J. M. P. Neurri batean, bai. Hemen ez dugu arazo erlijiosorik auzi horren inguruan —bai ordea gizarte benetako laiko baten egituraketan, baina hori beste kontu bat da, baita Euskal Herrian zer gizarte mota nahi genukeen ere, burujabe izanez gero—. Lehen esan dudan bezala, hemengo arazo nagusia tradizio demokratiko handi baten faltan datza. Kataluniako Legebiltzarreko kideen %90ek autonomi estatu berria onartu eta gero militar batek tankeekin mehatxatzen badu, zer espero daiteke? Bai, Mena jeneralarena xeblekeria bat zela esan zuten, baina nahikoa esanguratsua. Xeblekeria hori Espainian gertatuko da beti, ez Suedian edo Erresuma Batuan. Sintomatikoa da. Tradizio demokratiko falta da, azken batean.

“Atzerrian begirunez hartzen gaituzte”

N. Bateko eta besteko prozesuak zuzenean jarraitu dituzu. Atzeritik nola ikusten dute Euskal Herriak bizi duen egoera?

J. M. P. Begirunez eta elkertasunez hartzen gaituzte, batez ere beraiek ere estatutik gabeko herriak direnean. Estatua duten herritarren artean zailago da hori barneratzea, irudia okerrago dago eta estatu batzuen makineria mediatikoak autodeterminazioa eta ‘terrorismoa’ lotzen dituelako.

Autodeterminazioaren aldeko oihua ozen entzungo da abenduaren 2an

Usurbilgo herritar talde batek antolatu du autodeterminazioaren aldeko kanpaina. Berriako Jose Mari Pastorren hitzaldia izango da lehen ekitaldia. Baina ez bakarria. Abenduaren 2rako ekitaldiz jositako egitaraua prestatu dute. Egun osoko festa izango da.

Autodeterminazioaren alde Usurbilen elkartutako herritar taldeak aditza eman duenez, eskubide honen aldeko “dinamika erraldoia garatzeko erreferentzia nagusia prozesu demokratikoak gaur egun bizi duen egoera da. Argitaratzen ari diren hausnarketetan, prozesua krisi egoeran dagoela esaten ari dira, baina egoera hau gainditzeko, guztion aktibazio-inplikazioa beharrezkoa da. Gatazkaren muinean dauden bi kontzeptuak lurraldetasuna eta autodeterminazioa eskubidea dira eta korapilo horiek askatu ez ezean ez da irtenbiderik izango”.

Nazio eta herrialde mailan hainbat mobilizazio jendetsu burutu dira eta orain herriz herri hainbat ekitaldi egingo dira, “Euskal Herriak Autodeterminazioa” dinamikaren baitan.

Usurbilen bi dira antolatu diren



EKITALDI UGARI IZANGO DA ABENDUAREN 2AN, BESTEAK BESTE, TOKA TXAPELKETA.

saioak: azaroaren 30ean Jose Mari Pastor Berriako Mundua saileko kazetariak “Autodeterminazio eskubidea European” hitzaldia eskainiko du Sutegin. 20:00etan hasiko da hitzaldia.

Abenduaren 2an, larunbata, egun osoko festa

Bi ekitaldi hauen antolakuntzan autodeterminazioaren aldeko herritar talde bat ari da lanean. Antolatzaileen esanetan, “abenduaren 2an usurbildarrok aukera izango dugu autodeterminazioaren alde gure konpromisoa adierazteko”.

Ekitaldi partehartzaileak burutzeko asmoz hainbat eragile, elkarte eta herritarren laguntzarekin antolatu dute eguna. Denetik eta denontzat aurkitu ahal izango da.

Abenduaren 2an, egun osoko festa

GOIZEAN

Haurrentzako mural pintaketa, bolo eta toka txapelketa, elkarte arteko lehiaketa gastronomikoa

EGUERDIAN

Lehiaketarako prestaturiko jakia herritarrei eskeinitako zaie, sagardoz lagundurik, dohainik

ARRATSALDEAN

Mus txapelketa, auzo arteko futbito

txapelketa, beteranoen arteko esku-balo partida, sasoi honi dagokion bezala ohitura zaharrak jarraituz danbolinean eginiko gaztainak banatuko dira sagardoz lagundurik.

GAUALDEAN

Estilo ezberdinetako musika ekitaldia

* Oraindik pare bat ekitaldi lotzeke daudenez, hurrengo alerako orduak eta datu zehatzagoak jakinaraziko dira.

Argazki hau ikusita asmatuko al zenukete nora egin genuen irteera 6. mailakook?

Loiolako San Inazioaren Santutegira? Bada ez! Urriaren 20an, Miramongo Zientziaren Kutxagunera joan ginen 6. mailako neska-mutilok! Han gauza asko ikusi eta ikasi genituen. Barruan gune ezberdin ugari zeuden: argi jokoak, mekanika mundua, lur-ontzia, energia txinpartak, gai bitxiak, zentzumena eta irudipena, komunikazioa eta adimen artifiziala.

Gehien gustatu zitzaiguna, ispiluen

laberintoa eta iltzeko ohea izan ziren. Laberintoan sartu eta horrenbeste ispiluren aurrean, ematen zuen izugarritzko laberinto baten barruan geundela baina gero konturatu ginen gela edo laberintoa oso txikia zela. Baita ere, 7.000 iltzez osaturiko ohe batean etzan ginen. Gune guztietan zehar ibili ginen bitxikeriak aztertzen eta gauza berriak probatzen.

Hemendik irten ondoren, Planetarium-era sartu ginen, unibertso bitxikeriak ikustera.

Egun osoa bertan pasa genuen eta



azkenerako nekatuta bageunden ere, axola zigun gauza bakarra, oso ondo pasa genuela izan zen!



I n t e r n e t - z r m u n l k

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Heapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

EUSKAL OKELA
CALLE DE ISOLINO DE CALDAS DEL TRIA VIEJO

LK T
UT ZE ITZU

h k k l , 4
T H 43 3 67 42

ETXEK **F I T K**
K N A E L T U K **Z K I K**
Ø K T U K

Lau eskubaloi partida Oiardo kiroldegian

Asteburu honetan eskubaloi partidak ikusteko aukera paregabea izango da Oiardo kiroldegian. Usurbil Kirol Elkarteko lau taldeek etxeko partidak dituzte datorren jardunaldian eta larunbatean nahiz igandean herriko jokalariek aurtengo denboraldian daramaten ibilbide arrakastatsuan beste pausu bat emateko aukera dute herritarren aurrean. Izan ere, guztiak bikain dabilta lehiaketa hasiera honetan.

Kadete mailako mutilen taldeak Ereintza Aguaplast taldearen aurka jokatu du. Pako Agudo eta Jon Gallegok zuzendutako taldea 4. postuan kokatuta dago Gipuzkoako txapelketako sei jardunaldi jokatu ostean. Bi neurketa galdu arren, beste guztietan garaipena eskuratu dute eta larunbatean zaletuen laguntza beharko dute Ereintzari aurre egiteko. Izan ere, liderra izango dute aurrez aurre Oiardo kiroldegian, orain arteko norgehiagoka guztiak irabazi dituen taldea hain zuzen ere.

Maila bereko neskek ere hitzordu garrantzitsua izango dute asteburuan. Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatzeko txartela lortu zuen Nerea Agudo eta Patxi Bengoetxeak zuzendutako taldeak duela aste batzuk. Fase berri honetan norgehiagoka bakarra jokatu dute orain arte eta 20-20 berdindu zuten Andoainean Leizaran taldearen aurka.

Asteburuan, ordea, lehen garaipena eskuratzeko aukera izango dute. Oñatiko Verkol-Aloña taldearen aurka neurtuko



ESKUBALOI TALDEAK ONDO HASI DU DENBORALDIA.

dituzte indarrak herriko neskek. Lehen jardunaldian lortutako garaipenari esker lidertzan dira oñatiarrak eta lehenengo fasean, berriz, lehen postua eskuratu zuten beraien multzoan. Hala ere, usurbildarrek, zaletuen laguntzaz, denboraldi honetan daramaten ibilbide ezin hobean beste aurrerapauso bat emateko parada izango dute.

Jubenil mailako taldeak, berriz, neurketa errazagoa izango duela dirudi. Izan ere, sailkapenean azken postuan dagoen Aitxuri jatexea izango dute aurrez aurre Oiardon. Aurreko denboraldian ia eskuira izan zuten Gipuzkoako txapelketak ihes egin zien herriko jokalarik gazteei, baina aurten ere indartsu daudela erakutsi dute. Aurre-denboralditik senior mailako taldearekin entrenatzen ari dira eta zenbait jokalarik (Jon Argote, Zuhaitz

Lizaso eta Ekhi Arrieta) talde nagusiarekin jokatu arren, orain arteko partidak guztiak irabazita lidertzan daude Ereintza eta Bergararekin batera.

1. Territorial mailako taldeak ere etxeko partida izango du. Pasa den jardunaldian Pasaian Donibane Eskubaloiairen aurka irabazi ostean zaletuen aurrean beraien maila erakusteko aukera izango dute beste behin ere, Jose Lorenzo "Manzano" eta Antonio Castroren aginduetara lehendabizi eta azken honen gidaritzapean orain, jokaturako neurketa guztiak irabazi ditu Usurbil Kirol Elkarteko talde nagusiak eta asteburu honetan sailkapenean azken postuan dagoen Arrasateko eskubaloi taldearen aurka jokatu dute.

JOSU ARANBERRI



Infantil mailako futbol jokalariek

Usurbil Futbol Taldeko hiru taldeek eta Udarregi ikastolako infantil mailako taldeak Harane berria estreinatu dute jada. Azken talde honek 4 eta 1 irabazi zuen San Ignacioren aurka eta beraien multzoan lehen postuan daude jokaturako 3 neurketak irabazita. Bestalde, asteburu honetan neurketa bakarra jokatu da Haranen. Igandean arratsaldeko 15.30etan puntu premia handian dagoen 1. Errejonial mailako taldeak Lezoko Allerru taldearen aurka jokatu du.

Agenda

Azaroak 22, asteazkena

- Santa Zeziliren omenezko kontzertua Sutegin. 19:00etatik aurrera.

Azaroak 24, ostirala

- Joxean Gorgojoren erakusketak ikusteko azken eguna, 16:30etik aurrera Sutegiko erakusketak gelan.

- Usurbil Bizirik eta Zubiera Lantzen plataformen bilkura irekia Sutegin. 19:30ean.

Azaroak 25, larunbata

- Errauste planten aurkako manifestazioa Lasarte-Orian 17:00etan. 16:00etan Usurbildik abiatuko dira oinez, 16:30ean Zubietatik pasa eta 17:00etarako Lasarteko manifestazioarekin bat egingo dute.

Azaroak 26, igandea

- "1, 2, 3 Iñaxito" antzezlanaren antzezlanak Sutegin. 17:00etatik aurrera. Sarrerak, alde aurretik, 2 eurotan salgai Oiarde kiroldegian. Egunean bertan eta takillan, 3 euro.

Azaroak 27, astelehena

- Masaje ikastaroa Haur Eskolan, 16:30etik aurrera.

Azaroak 29, asteazkena

- "Elikadura ekologikoa 0-3 adin tar- teko haurretan", Sutegin arratsaldeko 18:30ean. Antolatzailea: Oinarriak eraikiz, Haur Eskolako guraso elkarte. Hitzaldia gaztelaraz, sarrera doan.

Literaturaren txokoa

Xabier Leteren *abestizak* liburu batean

Xabier Letek kantatu dituen eta kantatu dizkioten abestien hitzak, abestizak eta poema kantatuak jasotzen dira «Abestizak eta poema kantatuak» izeneko liburuan. Horrekin batera, Xabier atzera begira jarri zaigu, eta bere kantu edo kantu-sorta bakoitzaren historiakoa kontatzen digu, zer testuingurutan sortu zuen, testuinguru soziala, pertsonala, pentsamenduarena... Orobat, liburuaren azken partean Xabier Leteri egin dizkioten bi elkarrizketa mamitsu erantsi dira, bere gogoetak, kezkek eta gogoe-



tak ezagutzeko elkarrizketa delako bide zuzenera.

Liburuaz gain, lau disko aurkeztu berri ditu Elkar zigiluak: batetik, bere lehen hiru diskoen berrargitalpen bermasterizatuak. «Xabier Lete» (1974), «Kantatzera noazu» (1976) eta «Lore bat, zauri bat» (1977). Guztiak ere bere ibilbide oparoaren erakusgarriak, ez bairik gabe. Eta bestetik, Lourdes Iriondoren kantu grabazioekin osatutako antologia.

Poeta, abeslaria, pentsalaria, kantaria, kultur eragilea... Euskal Herriko kantagintza zein olerkiaren ordezkaririk garrantzitsu eta esanguratsuenetakoa da Xabier Lete.

Autoestima tailerra eta mikologiari buruzko hitzaldia Santuenea elkarte

Asteburu honetan, Santuenea Kultur Elkartek bi ekitaldi jasoko ditu bere egoitzan bertan. Batetik, autoestima tailerraren saio berri bat. Bestetik, mikologiari buruzko hitzaldia.

Autoestima tailerrari dagokionez, bakardadea, dueloa eta tritura izango dira ostiral honetan landuko diren gaiak. Saioa ordu eta erdikoa izango da eta 14:45ean hasiko da. Esandakoa, ostiral honetan, azaroak 24,

Santuenea elkarte.

Mikologia hizpide

Daniel Palacios usurbildarra mikologian aditua da. Hainbat liburu argitaratu ditu eta hitzaldi ugari eskaini ditu. Azaroaren 24an arratsaldeko 19:30ean mikologiak Euskal Herrian izan duen tradizioaz hitz egingo du Santuenea elkartearen egoitzan. Onddoen munduari buruzko hainbat datu interesgarri ere eskainiko ditu.



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA SALMENTA



PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIAN
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

ETXEBIZITZA

- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- Galtzaragaña 5 zenbakian garaje bat daukagu salgai. 943 361 219.
- Zubiaurrena 2 zenbakian berrituta dagoen lokal bat alokatzen da. 658758237.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein

motatoko bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak dauzkatz salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. Interesatuak deitu 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermitikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordaintetan !!

Zorionak bioi!
Azaroaren 11n zazpi urte bete zituen Alaznek. Nikolasek, aldiz, 84 urte beteko ditu azaroak 23an. Zorionak etxekoan partez eta muxu potolo bana biontzat.



Eguneko goardiako farmaziak

- Azaroak 23, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
 - Azaroak 24, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
 - Azaroak 25, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
 - Azaroak 26, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
 - Azaroak 27, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
 - Azaroak 28, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
 - Azaroak 29, asteazkena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
 - Azaroak 30, osteguna**
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte
 - Abenduak 1, ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
 - Abenduak 2, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte
 - Abenduak 3, igandea**
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Aizpuru, Farmazia, Latsunbeberri 11, Heñani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

JAIOTAKOAK


- Mikel Zabaleta Ugarte azaroaren 7an.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Etxea (ere) umeen eskola

ESKOLAN eta etxean ikusten duenak haurrari eragin egiten dio bizitzako arlo guztietan. Ikastetxeak haurraren heziketan ari dira egunero, eta lan handia egiten dute; horrez gain, ordea, ezinbestekoa da etxearen inplikazioa, eta beste gaitan bezala, etxekoek

Buruntzaldeko 6 herrietako udalak eta ikastetxe batzuk proiektu piloto batean ari dira, aurtan bigarren urtez. Proiektua Haur Hezkuntzako gurasoei dago zuzendua eta etxean euskara indartzea du helburu nagusia.

Etxeak garrantzi handia du umeen heziketan, eta ez bakarrik oinarritzko baloreen transmisioan. Beste arlo guztietan ere umeari eragin egiten dio etxean ikusten duenak, etxekoon ohiturak (hizkuntzazkoak kasu), jokabideak, bizitzeko moduak. Hizkuntza kontuetan ikastetxeak egunero ari dira lanean, eta behar beharrezko elementu bihurtu dira transmisio egoki bat bermatzeko. Horrez gain, ordea, beste ingurune askok eragiten dute transmisioan, eta horietako bat da etxea, familia.

Gogoeta, aldaketarako lehen urratsa

Ohiturak aldatzea ez zaigu, normalean, erraza gertatzen. Ohiturak oso errotuta egoten dira gure barnean eta, premia handiren batek eraginda ez bada, nekez aldatzen ditugu. Halakoen faltan, gure ohitura eta jokabideetan aldaketaren bat egitekoan, lehenik eta behin nahia edo gogoia izan behar dugu aldatzeko eta, nahi hori sortu bazaigu, jokabide horien inguruan pentsatu dugulako izan da, gogoeta egin dugulako.

Gogoeta hori pizteko bitarteko, txinparta izan nahi du Buruntzaldeko ikastetxe hauetan martxan dagoen programa honek. Gogoeta, haur txikiak dauden familietan sortzen diren ohiko egoeretan gurasook hartzen ditugun jokabideen inguruan, hiz-

hizkuntzarekiko duten jarrerak zer esan handia du umeen hizkuntz jokabidean. Buruntzaldeko 6 herrietako Euskarako Batzordeek bultzata, 6 ikastetxetan proiektu bat dago martxan, etxeko hizkuntz erabile-
ra indartu asmoz.

kuntz jokabidea barne.

Aurkezpenak, hitzaldiak, ikastarok... dira programaren osagaiak eta bertan hainbat material banatu eta landu da Haur Hezkuntzako gurasoekin.

Ikastetxeen dinamikarekin bat

Haurraren heziketa helburu, modu osagarrian egiten dute lan ikastetxeek eta gurasoek, eta alde bietako komunikazioa estua da, ezinbestean. Adin hauetako haurren ezaugarriak, gurasoen jokamoldeen eragina, haurrekiko harremanean zaindu beharreko kontuak... aztertu eta lantzen dituzte etengabe. Buruntzaldeko programa hau ere ildo beretik dago landua, ikastetxeen lan-dinamikan egoki txertatu ahal izateko, eta hizkuntzaren osagai sakontzeko aukera ematen du. Modu honetara, ikastetxe bakoitzak bere erritmo eta dinamika propiora egokitu dezake eta egokitu du egitasmoa.

Ikastetxe guztietara zabaldu nahi den proiektua

Proiektuan ari diren ikastetxeak hauek dira: Andoingo Larramendi, Astigarragako Arantzazuko Ama, Hernaniko Langile, Lasarte-Oriako Landaberri, Urnietako Egape, eta Usurbilgo Udarregi. Dena dela, aurtan, eskualdeko beste ikastetxeetan azaldu egingo da orain arteko esperientzia zein izan den, eta datorren urtean edo datozenetan, parte hartu nahi duten guztietara zabaldu nahi da egitasmoa.

Osasun etxeetako esperientzia

Gurasoengana iritsi nahi duen programa honen barruan Osasun etxeek ere badute beren lekua. Joan den urte-



an, ama izateko eskaintzen diren ikastaroetan landu zuten gaia, eta aurtan, Osakidetzaren parte hartze beteagoa, zabalagoa lortu nahi da, programa gurasogai gehiagorengana iristeko.

Eragile askoren arteko lana

Buruntzaldeko 6 udalak eta ikastetxeak dira zuzenean egitasmoan parte hartzen ari direnak, baina eragile gehiago dira programa bideratzen ari direnak. HABE, Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza eta Soziolinguistika Klusterra dira, udal eta ikastetxeekin batera, programaren diseinuan, koordinazioan, jarraipen lanean eta finantzazioan ari diren erakundeak. Proiektua eskualdetik harago zabaltzeko aukera aztertzea eta garatzea da koordinazio gune honen helburua.

Proiektuan parte hartzen ari diren ikastetxeak

Andoain	Larramendi
Astigarraga	Arantzazuko Ama
Hernani	Langile
Lasarte-Oria	Landaberri
Urnietako	Egape
Usurbil	Udarregi

Euskara ere eman



Zeuk duzu giltza



Etxean zer ikusi,
hura ikasi



Euskarako
Batzordeak

Andoain, Astigarraga,
Hernani, Lasarte-Oria,
Urnieta eta Usurbilgo
Udalak

Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Elkartea

Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean



etxez
etxeko
banaketa

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

➔ www.noaia.com ⬅

usurbildarron zerbitzura

